goa Jna./And., Euskal Herriko Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra.

Mahaikideak: Alfonso Fernández Díaz Jna./And., Madrileko Unibertsitate Politeknikoko Unibertsitate-Eskolako Katedraduna, Pedro Garcés Miguel Jna./And., Rovira i Virgili Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra, José Manuel Andújar Márquez Jna./And., Huelvako Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra.

Ordezko Batzordea:

Mahaiburua: José María González de Durana García Jna./And., Euskal Herriko Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Katedraduna.

Idazkaria: José María Lizarzategui Urdangarín Jna./And., Euskal Herriko Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra.

Mahaikideak: José Gabriel Zato Recellado Jna./And., Madrileko Unibertsitate Politeknikoko Unibertsitate-Eskolako Katedraduna, José Vicente Valverde Sánchez Jna./And., Extremadurako Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra, Manuel Joaquín Redondo González Jna./And., Huelvako Unibertsitateko Unibertsitate-Eskolako Irakasle Titularra.

# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-500

6/1998 DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Eduardo Frei Ruiz-Tagle jaun txit gorenari, Txileko lehendakariari, «LAGUN ONARI» goraipamena emateko dena.

Euskaldunak aspalditik daude Txilen, herrialde horretako historiak erakusten duenez. Txilek euskaldun asko hartu ditu mendeetan zehar eta horrela bizimodu berri bati ekiteko aukera eman die. Euskaldun horiek egungo Txile lehiatsua eraikitzen ere lagundu dute herrialde horretako iparraldeko basamortuetatik hegoaldeko izotz hotzetara.

Euskaldunek mendez mende Txilen emandako urratsek adiskidetasun eta harremanetarako bide argia urratu dute bi herrialdeen artean, gero eta zabalagoa eta argiagoa dena. Bide horrek Txileko erakundeak eta euskal erakundeak ere lotzen ditu, duela

rrebengoa, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Vocales: D/D.ª Alfonso Fernández Díaz, Catedrático de Escuela Universitaria de la Universidad Politécnica de Madrid. D/D.ª Pedro Garcés Miguel, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad Rovira i Virgili. D/D.ª José Manuel Andújar Márquez, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad de Huelva.

Comisión Suplente:

Presidente: D/D.ª José María González de Durana García, Catedrático de Escuela Universitaria de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Secretario: D/D.ª José María Lizarzategui Urdangarín, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Vocales: D/D.ª José Gabriel Zato Recellado, Catedrático de Escuela Universitaria de la Universidad Politécnica de Madrid. D/D.ª. José Vicente Valverde Sánchez, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad de Extremadura. D/D.ª Manuel Joaquín Redondo González, Profesor Titular de Escuela Universitaria de la Universidad de Huelva.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-500

DECRETO 6/1998, de 27 de enero, por el que se concede la Distinción «LAGUN ONARI» al Excmo. Sr. D. Eduardo Frei Ruiz-Tagle, Presidente de la República de Chile.

La presencia vasca en Chile hunde sus raíces en la propia historia de este país. Chile ha sido, a lo largo de siglos, tierra de acogida para muchos vascos que allí han podido labrarse una nueva vida; vascos que han contribuido también a construir la hoy pujante nación chilena y cuya presencia se hace patente desde los desiertos del norte hasta los fríos hielos del Sur.

La huella vasca en Chile ha marcado una clara senda de amistad y relación entre ambos Pueblos que no sólo persiste en la actualidad sino que se profundiza y acrecienta cada día. Unos lazos que nos unen también a las Instituciones chilenas y vascas que desde hace

zenbait urtetatik hona elkarlanean ari baikara ekonomia, nekazaritza, osasuna, kultura eta gizarte arloetako zenbait proiektu gauzatzeko. Lankidetza horren emaitza onak Eduardo Frei Ruiz-Tagle lehendakariaren beraren eskuhartze irmoari zor zaizkio hein handian, Txileko buruzagitza hartu aurretik ere gogo biziz aritu baitzen lanean Txilek eta Euskal Herriak batera egin zezaten aurrerapenerako eta garapenerako bidea.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Euskal Herriarekiko erakutsi duen adiskidetasuna aitortzeko, honako hau erabaki dut, urriaren 22ko 236/1996 Dekretuan ohoreak eta goraipamenak emateko ezarritakoaren arabera:

«LAGUN ONARI» goraipamena ematea Eduardo Frei Ruiz-Tagle jaun txit gorenari.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko urtarrilaren 27an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

varios años colaboramos intensamente en diversos proyectos de cooperación en materia económica, agrícola, sanitaria, cultural y social. Los positivos resultados de esta colaboración se deben, en buena medida, a la intervención personal y decidida del Presidente Eduardo Frei Ruiz-Tagle, quien incluso antes de ostentar la máxima jefatura del Estado chileno ya trabajó con entusiasmo para que Chile y el País Vasco recorrieran juntos el camino del progreso y del desarrollo.

En atención a estas circunstancias y en reconocimiento a su probada amistad con el Pueblo Vasco, de conformidad con lo establecido en el Decreto 236/1996, de 22 de octubre, por el que se regula la concesión de Distinciones y Honores,

Vengo en conceder al Excmo. Sr. D. Eduardo Frei Ruiz-Tagle la Distinción «LAGUN ONARI».

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

**Zk-501**

ERABAKIA, 1997ko abenduaren 18koa, Lehendakaritzaren idazkariarena, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoan 1997rako dauden kopuru erabilgarriak proiektu batzuei esleitzen dizkiena.

Martxoaren 18ko 53/1997 Dekretuaren 27. artikuluak xedatutakoari men eginez, 1997ko urriaren 10eko Erabakiaren bidez esleitu zitzaizkien I. Eranskineko proiektuei 1997rako Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoan zeuden dirulaguntzak. Aipaturiko Erabakiaren II. Eranskinean beste proiektu batzuk zerrendatu ziren, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoan 1997rako soberakinik izanez gero, proiektuoi esleitzeko.

Aipaturiko Erabakiaren I. Eranskineko 0020 eta 0204 zenbakidun Proiektuak gauzatzeari uko egin zaionez, eta Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoan beste soberakin batzuk daudenez gero, soberakinok 1997ko urriaren 10eko Erabakiaren II. Eranskinean agertzen diren proiektuei esleitu behar zaizkie.

Beraz, hauxe

**N°-501**

RESOLUCIÓN de 18 de diciembre de 1997, del Secretario de la Presidencia, por la que se conceden ayudas a Proyectos con cargo a cantidades disponibles procedentes del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para 1997.

De conformidad con lo establecido en el artículo 27 del Decreto 53/1997, de 18 de marzo, por Resolución de 10 de octubre de 1997 se concedieron las ayudas a proyectos con cargo al FOCAD para 1997, previéndose en su Anexo II una relación de Proyectos para el caso de disponibilidad presupuestaria del FOCAD para 1997.

Habiéndose producido la renuncia de las ayudas concedidas a los Proyectos que figuran en el Anexo I de la referida Resolución con el n.º 0020 y 0204, y existiendo crédito en el Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo, procede adjudicar las cantidades que quedan pendientes a los Proyectos que se contemplan en el Anexo II de la Resolución de 10 de octubre de 1997,

En su virtud